

Diodanez

IÑAKI FRIERA URBISTONDO

Urtarrilak 3. Mezu bat heldu zait e-postara: “Gauza bat, gertu zaude artikulu bat idazteko *Senezera*ko, EIZIEk antolatutako mintegian izandako esperientziaren gainean? Eskerrik asko”. Oroimena iazko udaberriko hilabete erdi ahaztu batera joan zait, lantokiko telefonoak jo eta beste lagun baten ahotsak proposamen zirraragarri bat egin zidan egunera: *Idazlea itzultzaileen lantegian*, 2009ko saioan, parte hartzea.

Orain orduko esperientzia paperera ekartzea proposatu didate, egun haietako inpresioak eta iritziak zuriaren gainean jartzea. Horretara nator, baina abisu bat emanda: ez da hau izango ez maisu-lan bat ez itzulpenaren gaineko lan teorikoa; orduan bizi izandakoa konpartitzera natorkizue, orduko zenbait gorabehera, gertaera eta pasadizo, nik bizi izan nituen bezala, apaindurarik gabe.

Karlos Linazasororen *Diotenez* liburuko hamaika ipuin labur gaztelaniara itzultzea

genuen lehendabiziko eginkizun; itzulpenen gaineko talde-lana, bigarrena. Hamai-ka mikroipuin haien tituluak, hain zuzen ere, baliatuko ditut *lantegi* haren kronika egiteko.

Atzeraeraginezkotasunez

“... atzeraeraginezko izan nahi nuen, eta, lan eta neke askoren ondoren, atzeraeraginezkotasuna lortu dut. Neronek idazten dut orain nire iragana...”

Esfortzu handirik gabe joan naiteke irail-eko goiz hartara, Gasteizko taberna batean itzultzaileen lantegiko *langileak* elkartu ginen egunera. Urduri heldu nintzen.

Eginak nituen etxeko lanak: udako hila-beteetan Karlos Linazasororen mikroipuinak irakurtzen eta itzultzen jardun nuen eta garaiz bidali nizkion itzulpenak Manu López koordinatzaileari. Baina lantegiko beste kideekin elkartzeko unea heltzen ari

zela, bakarkako lanetik talde-lanera igaro behar nuela sentitzen hasteaz batera, konparazio baterako, hiru mosketari handiren artean sentitu nintzen (denok ezagutzen dugu Manu Lópezek, Gerardo Markuletak eta Itziar Otegik literatura itzultzen daukaten esperientzia eta eskarmentua), eta ez nintzen ni, preseski, D'Artagnanen papera jokatu behar zuena.

Ez dakit une hartan *atzeraeraginezko* izateko gogo handia sentitu nuen, eta handia diot ze badakit jakin neure barruak higitzen hasi zirela, pitinka, baina nerbioek eragiten duten dardararen erritmoan betiere. Hogei bat urte daramatzat itzulpen-munduan, baina hura zen (eta izan da) literaturarekin ausartzen nintzen lehen aldia, eta artegatasuna, nolabaitekoa baina artegatasuna azken finean, sentitu nuen.

“Benedetto Croceren iritiz literaturako artelana itzulezina da. Baina guztiok dakigu literatura lanak itzuli egiten direla eta, batzuetan, bikain gainera. Sekretua, gakoa, ziurrenik, Sapir-ek dioen bezala, edukia eta forma bereiztean aurkitu beharko dugu. Eduki bera ematen asmatu, baina lehengaia beste hizkuntza bateko trokela, molde, kolorea, ehundura izanik”, esan berri du Miren Azkarate euskaltzainak Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldiari emandako erantzunean. Asmo horren betean heldu nintzen lantegira, edukia eta forma bereizten asmatu nuelakoan.

Hala ere, aipaturiko hiru ezpatarion aurrean burua erdi makurtzeko beharra ere sentitu nuen, uda aurretik jasotako *eskularrua* ez ahal zitzaidan gehiegizko duelu baterako sarbide bihurtuko.

Iragazi-gizona

“Iragazi-gizon bat naiz. Urrea aurkitzen diet pentsamenduei, hitzei, ideiei, den orori.”

Horrela jardun genuen iraila baino lehenago: egilearen pentsamenduak, hitzak eta ideiak iragazten nor bere zuloan. Horrelako zerbait da itzultzea. Baina hori baino gehiago ere bai. Itzultzailea ezin geldi daiteteke ibaiaren ondoan, iragazkia eskuan, ur lasterretan datorkion zer lokaztua zuloxoe-tatik irazita urrea bertan geldituko zaio-lakoan. Meategira jaitsi beharra du itzultzaileak, mearen errailetan zulatu harik eta mineralik puruena aurkitu arte. Eta orduan atsedetik gabe jo behar du, eta jo, egindako esfortzu guztiak askorako balioko duen jakin gabe, beste batek neurtuko baitu hark aurkituriko urrearen pisua, benetako balioa: testu-hartzailea.

Eskema honekin lan egin genuen lantegian: lau itzultzailek eta egileak berak hamaika testu itzuli behar genituen (Gerardok, Karlosek eta nik neuk gaztelaniara; Nahia Zubeldiak, frantsesera, eta Sarah Turtlek, ingelesera). Lanok Manu Lópezek eta Itziar Otegi bidali eta eurek prestatu behar zituzten denon artean aztertzeko, bertsio ezberdinak alderatzeko. Azkenik, irailaren amaiera aldean, lantegian elkartu eta, denok testu-hartzaile bihurturik, nolabaiteko testu bateratua lortu behar genuen, nor egindako itzulpenaren zergatiak eta nondik norakoak aztertzeaz batera.

Alegia, iragazi-gizona izatetik (itzultzailea) urrearen pisua neurtzera (irakurlea) pasatu ginen. Eskema horretan, baina, ezin gauza bat ahaztu: denok *itzultzaile* aritu

arren, testuaren egilea, idazlea bera, gure artean zegoen eta berari zegokion D'Aragnanen papera jokatzeari, ezpatek elkarren kontra talka egiten zutenean, indarrak berdinduta zeudenean, azken estoke-kolpea ematea.

Laidoaren gezirik gordinena

“Baina, sailheska begiratu arren, nik bekoz beko eta osorik ikusten dut mundua, ez soslaiz edo zeharrez, eta badakit zer den laidoaren gezirik gordinena”.

Gezi gordintzat har dezake itzultzaileak haren lanaren gaineko kritika, zuzenketa, berridazketa. Karlosi egokitu zitzaion betekizun hura, gure lanari buruzko azken hitza ematea.

Ez da erraza izaten buelta asko eman eta gero hartu duzun bidea okerra dela onartzea, halako modu ez oso garbian begiratzen zaio zuzentzaileari, sailheska bezala, eta etsai bat dirudi.

Egun bi haietan, aldiz, ez nuen sentipen hori izan. Karlosek sorpresaz, harriduraz, plazereaz, beldurrez, gustuz... ez-dakit-zen-bat molde hartu zituen gure proposamenak (eta baita hark egindako itzulpenak ere) eta beti giro onean. Goiz-arratsaldeko saioak izan arren (kafearen eta bazkariaren orduan ere gaia ezin saihestu ibili ginen), giro ona izan zen nagusi, baita nekeak nolabaiteko “itolari kosmiko bat” sortzen zigunean ere. Uste dut, lagunek esan beharko dute, hori izan zela saio haietako gauzarik ederrena, egun haietako lanen argitalpenak ezin erakutsi dezakeena.

Izenpea

“Artzain zaharrak ez zekien ez irakurtzen ez idazten”.

Une politikak izan ziren, asko ikastekoak, baina asko disfrutatzeakoak ere. Giro onean jardun genuen, konfiantza elkarri hartuta, iritziak eta kontra-iritziak batak besteari erraz emanda. Une polit horietako bat *Izenpea* ipuinaren inguruan suertatu zen. Luze eman genuen hitz baten inguruan eztabaidatzen, teoriarik inolako arazorik eman behar ez zuen hitz baten gainean.

Horrela amaitzen da *Izenpea*: “... eta artalde zoragarri bat marraztu zuen”. Ez dirudi arazorik dagoenik, ezta?

Gerardok eta biok aho batez eman genuen “artalde” haren baliokidea: rebaño. Karlosen ustez, hura gehiago zehaztu behar zen, artzainak marraztu zuena *artalde* baitzen, hau da, “ardien taldea”, eta izaera hura gaztelaniaz ere jaso behar zen. Gure iritziak, baina, nahikoa zen “rebaño” hitzarekin, beste zehaztasunik ezean, ardiarena adierazten zuelakoan¹.

Ez ginen Karlos konbentzitzeko gauza izan. Eta egia esateko, atzeraeraginezko-tasunez jokatuta, ez zen ahalegin horretarako beharrik ere: ELHUYAR, 3000 eta Labayrun “artalde” bilatuz gero, hiruetan hitz bera ematen digute: “Rebaño de ovejas”. Karlosena, beraz, apeta baino gehiago arrazoia zen, bere txikian baina arrazoia.

1. Real Academia Españolaren hiztegiaren horrela agertzen da lehen sarreran: “Hato grande de ganado, especialmente lanar”.

Goiz batzuetan

“Ikusten dut auzoa, eta bizkarrera lotzen natzaio izterrez, saihets aldean; topatzen dut haritz tantaia, eta tximino baten abileziaz hartzen dut haren enborra; jotzen dut begiz zerbait zutikakoa...”

Giro onean bai, baina lantegi batean dena ez da jolasa. Zenbait unetan, eztabaidatu eta eztabaidatu ostean, Karlosek berak eten egin behar izaten zuen matrak: “Hori horrela da, nik zentzu horrekin idatzi nuen eta” moduko bat esanez. Hala-koetan, idazlearen nahia eta hitza onetsi behar izan genuen, ezin bestela izan, eta hark eskatu bezala utzi, gure harridurarako bazen ere. Hala gertatu zitzaigun *Goiz batzuetan* ipuinean.

Zangalatrauarekin jokatu zuen Karlosek ipuin horretan. Hara zer dioen literatura-hiztegiak *zangalatrauaz*, besteak beste: “... zangalatraua gertatzean, tentsioa sortzen da erritmoaren aldetik”. Tentsiora, noski, ez ginen heldu, baina “auzoa” hitzaren itzulpena eztabaidatzean, esango nuke zer edo zerk tenk egin zuela gurean.

Gerardok eta biok “vecino” itzuli genuen; Karlosek berehala zuzendu zuen gure lana: “Ez, ez da ‘vecino’, ‘barrio’ da”. Elkarrri begiratu genion ofiziozko itzultzaileak, idazleak ebazitakoak zur eta lur utzita. Irudia imajinatzeko ahalegina egin genuen, auzo osoari zangalatrau dagoela ikusteak lanak eman zizkigula onartu beharra dut, errazago egiten zitzaigun auzokide bakar baten bizkarrari lotuta irudikatzea, baina... Tentsiorik gabe esateko moduan: egilearen lexiko “markatuari” ere men egin behar izan genion zenbait aldiz.

RIP

“Aitari begiratzen diot, eta aitak ez dit basoa ikusten uzten”.

Aurrekoen harira, esan behar dut uste batekin irten nintzela jolas hartatik eta hainbat buelta eman dizkiodala geroztik, orduko pasadizoak gogora ekarri ditudanean.

Beti da zaila jatorrizkoaren eta itzulpenaren arteko distantzia salbatzea egilea eta itzultzailea pertsona bi direnean. Egileak hurbilago sentitzen du berak xede-hizkuntzara egindako itzulpena bestek egindakoa baino, egileak berak egindakoa berridazketatik hurbilago baitago itzulpenetik baino. Uste dut halako zerbait gertatu zitzaigula *Izenpea* ipuinarekin. Hau da, Karlosek ez zuen bere burua ezagutu “rebaño” hartan. Ez zen eroso sentitu, egindako itzulpena arrotz egin zitzaion, ez zuen beretzat hartu.

Sentsazio bera izan nuen lantegiko beste zenbait unetan. Karlos oso zorrotza (zentzu onean diot) izan zen gaztelaniazko zenbait itzulpenekin eta ez hain zorrotza (emaitzak ikusita) ingelesera eta frantsesera egindakoekin. Horrek ez du esan nahi ingelesera eta frantsesera egindako itzulpenak gustukoagoak izan zituenik, baizik eta gaztelaniazkoetan, inolako arazorik gabe ulertuta, sarritan ez zuela bere burua ezagutu: “Hori ondo egongo da gaztelaniaz, baina hori ez dut (nuke) nik idatzi(ko)” esateko modu bat.

Une haietako bat *RIP* ipuinean gertatu zitzaigun. Testuan bezala, geu ere aitari begira gelditu ginen, eta aitak ez zigun basoa ikusten utzi. Ez zigun Atañoen eta Machadoren arteko jokia ikusten utzi, euskararen eta erdararen arteko lehia ez beti *gorria*. Eta

erdarara ekarri genituen aitaren hitzak. Eta Karlosek, arrazoiz atzera ere: “Baina, nire aitak ez zuen ‘descanse en paz’ esaten. Hark ‘goian bego’ esaten zuen”.

Amore eman genuen Gerardok eta biok eta euskaraz utzi erdarazko testuan ere. Nago, baina, zalantza bat gelditu zitzaigula argitu gabe. Horrela idatzi zuen Itziar Ote-gik²: “Non geratzen dira oihartzun inplizitu horiek denak hitzok ingelesez eta frantsesez jartzean? Eta zer egin? Esapideok euskaraz utzi, eta gainerako guztia ingelesez eta frantsesez jarri? Merezi al du horrek frantses eta ingeles irakurlearengan eragingo duen arrotasuna? Ezetz erabaki zen, ez zuela merezi, eta esapideok itzuli eta letra etzanez markatzea izan zen soluzio hobetsia”. Baina, nire galdera da, zergatik hartu zen erabaki hori xede-hizkuntzak ingelesa eta frantsesa zirenean eta ez gaztelania zenean? Alegia, zergatik erabaki zen esaldiak euskaraz uztea, haiek gaztelaniadunarentzat arrotzak izango zirela jakin arren?

Auzoparanoia

“Alde horretatik, ez dago ezusterik, ekimena nire esku dago beti. Baina inoiz ez da jakiten”.

Giro onaren beste adibide bat ondoko eztabaida hau izan zen: Sortzaile da itzultzailea? Ez naiz oroitzen nork jarri zuen gaia mahai gainean; bai, aldiz, Karlosen berehalako erantzunaz: “Sortzailea neu naiz; zuek, itzultzaileak zarete”. Inolako harropuzkeriarik gabe esan zuen, baina konbentzimendu osoz.

Karlosentzat ez zegoen itzultzailearen lanean sormenerako lekurik. Itzultzailearen lanak muga jakina zuen: sortzaileak, idazleak, sorturikoa beste hizkuntza batean ematea, nolabaiteko ariketa automatikoa, sormenik gabekoa.

Gaur egun inor gutxik eztabaidatzen du irakurleak, hizkuntza batean zein bestean, modu berdinean ulertu behar duela, eta sentitu, itzulpena eta jatorrizko lana, itzulpena baliokoa izango bada. Horretarako, itzultzaileak estilistikarekin loturiko prozedura tekniko batzuk erabiliko ditu –hala nola transposizioak, modulazioak, ekibalentzia, moldaketak, anplifikatzeak, azalpenak, kentzea eta konpentsatzeak–, betiere jatorrizko idazlea irakurlearengana (jatorrizkoa ez den beste hizkuntza batean ari da) eramateko asmoz.

Eztabaidak gure alde egin zuela esango nuke. Hona idazlearen hitzak³: “Baina itzultzaileak ezin du etsi bere lanean, aldatu beharrak dauzka hitzak beste hizkuntza baten maitasun eta soinetara, samurtasunez eta ez oldarka, egonarri esan ezin halako batez” edo “Lagunok ulertarazi didatena da beste hizkuntza batean berdin-berdin maita litekeela edo bizi, jatorrian esaten dena zuzen esaten bada, edo zuzenago ahal bada”.

Azken finean, arrazoia zuen Karlosek, berriz ere, *auzoitzulpenean* ari baikin.

Erietxean: gurutzegrama

“Ez dut hitza asmatzen, inoiz ez dut hitz bakar bat ere asmatu...”

2. Senez 38, 87. or.

3. Senez 38, 89. or.

Ipuin honetara helduta (hirugarrena izan zen), halako sentsazioa izaten hasi nintzela aitor dezaket. Zaila zirudienean, arriskatu eta pilota luze joaten zela sentitzen hasi nintzen; erraza zenean, labur gelditu. Gerora ere, orduan egindako lanaz gogoeta egin dudanean, gurutzegraman hartan bezala sentitu naiz zenbait aldiz (eta ezin *atzeraginezkotasunez* jokatu).

Kolore hamaika letradun bat bilatzen ari da mikroipuin honetako protagonista, ume bati bihotza aldatzen ari zaion bitartean. Operazioaren larria sentiarazten digu. Gurekin jolasten da, larritasun hura arindu nahi balu bezala, hostasunez tratatzen du ebakuntza bera: aldatu behar zaio bihotza, hondatu egin zaio eta, auto zahar bati buruz mintzo bagina bezala.

Hamaika buelta eman genion honi, ipuinaren krudela eta gogorra ere aipatu zen eta, hala ere, nago gauza bati ez geniola behar bezala erreparatu, ipuinaren benetako jolasari alegia. Lantegia amaitu eta egindako lana berriz irakurtzean, kontu batez ohartu nintzen. Hara zer dioskun Karlosek kolore hamaika letraduna aurkitu duela aitortzen digunean, azken esaldian: “Eta (1) nik (2) orain (3) badakit (4) bihotz (5) berriaren (6) kolore (7) hamaika (8) letraduna (9), hamaika (10) biziduna (11).” Alegia, esaldi hamaika berbadun batez amaitzen du.

Ez dut uste detaile horretaz mintzatu ginenik eta hemendik ezin esan kasualitate hutsa den ala propio egindako ariketa. Bigarrenaren alde egingo nuke lepoa. Hala izanez gero, itzulpen bakar batek ere ez zuen ezaugarri horretan asmatu.

Erietxean: lagun galdutuak

“Horregatik, galtzen naizenean, ez naiz betiko galtzen, inolaz ere. Betiko galtzeko, ondo-ondo ezagutu behar dira bazterrak, eta hala ere lanak izaten dira betiko galtzeko.”

Beharbada ez genuen guztietan asmatu, ez bakarreko lanean ez taldekoan. Baina, egia esan behar badut, oso gutxitan sentitu nintzen galduta. Horretan, dudarik gabe, balio handia hartzen du koordinatzaileek egindako lanak. Erabilitako metodologiak erraztu egin zigun bi egun haietako eginkizuna, udan egindako lan ezberdinen arteko loturak, diferentziak eta aldeak ondo markatuta heldu baitziren. Ondo gidaturik ibili ginen uneoro. Galdu, beraz, ez ginen galdu. *Galdutu*, berriz, noiz edo noiz bai.

Iban Zalduari irakurria nion Linazasororen ohiko gaiak eta obsesioak aurkituko genituela liburuan, “errealitatearen absurduari buelta ematen dioten pasarteak; surrealismoaren mugetan gertatzen direnak kontatzen dizkigu; jolas metaliterarioak egiten ditu, hizkuntzarekin jolasak, bidaia fantastikoak, umorea eta horrorea tartekatatu...”.

Horren frogagarri bat da *Erietxean: Lagun galdutuak*. Karlosen hitz-jokoa eman nahian, errazenera jo beharrean (*perperdidos* izan zen lagunek hautatu zuten hitza), biderik konplikatuena hartu nuela sentitu nuen (eta ez nik bakarrik, lagunek hitz haren zergatiaz galdetu zidaten-eta, haiek ere harrিতa nonbait).

“Amigos que perderan” jarri nuen titulua. Zergatik? Galtzeko modu berezi bat iruditu zitzaidan Karlosek mikroipuinan asmatutako aditzaren adierazia: ez da gal-

tzen, hor dago, egon gabe ere hor dago, “Ikusezintasun halako bat lortzea, erietxean soilik lor litekeen status bat, biziaren eta heriotzaren erdibidean dagoena”. Irauteko modu berezi bat ere iruditu zitzaidan. Horregatik, erdarazko hitz-joko batera jo nuen, bi aditzekin jokatzera hain zuzen ere: *perder + perdurar = perderar*.

Manu Lópezek hau idatzi zuen egun haietako jardunaz⁴: “Laburbilduz, hiru itzultzaileen artean (egilea barne) nahiko garbi suma zitezkeen testuak aldatzeko estilo desberdinak, literaltasunaren muturretik itzulpen librearenera, eta deigarria izan zen ohartzea askatasun handiena hartzeko “eskubidea” edo lizentzia zuena, Linazasoro alegia, izan zela testuen literaltasunari gehien eutsi ziona (zalantzatan zeuden esanahiak irmo finkatzearekin batera). Beste bi itzultzaileen artean, berriz, Frierak libreago itzultzeko joera erakutsi zuen, eta Markuletak literalago aldatzekoa”.

“*Galdutu* egin zara, Iñaki” esan nion neure buruari.

Non da

“Amaren eskuak, diot, kirru eta itsaso goizero, ihintzeko lorratzak kenduz, burukoaren hodei-arantzak”.

“Les mains de maman, dis-je, mer et ondulation chaque matin, effaçant les vestiges de rosée, les épines de nuages de l’oreiller”.

“Mother’s hands, I say, curls and sea each morning, removing the traces of dew, the cloudy thorns on my pillow”.

“Manos de madre, digo, cerro y mar cada mañana, borrando estelas de rocío, nubes y espinas de almohada”.

Izan ziren, ezinbestean, hizkuntza batera edo bestera etortzeko aldapan gorako bideak. Orain arte komentaturiko batzuk *huseriak* zirela pentsa genezake, erraz konpon zitezkeenak (*artalde*a edo *RIP* horiekin gertatutakoa, berbarako, hala uler daitezke), eta hala konpondu genituen. Beste batzuekin, berriz, ariketa gogorra eginda ere, bide okerra hartu genuela uste dut, ez ginela kapaz izan hitzaren edo hitz-jokoaren atzean ezkutatzen zena behar bezala ulertzeko. Kasu bat, adibidez, *Non da* ipuinean ikus dezakegu.

Aitortu behar dut joko ederra iradoki zidala “hodei-arantzak” hitz elkartuak lehenengoz irakurri nuenean, euskaraz ari nintzela inolako oztoporik gabe sartu zen neurean, garbi, ezer urratu barik. Gaztelaniaz eman nahi izan nuenean, aldiz, mendian larre arteko loretxo hura legeztatu sentitu nintzen, umetxoari begira, hark arantzak banan-banan kenduko zizkidalakoan. Buel-taka hasi nintzaion bi izen horien arteko loturari. Zer ote zen, *-ko / -ren* elipsia, eta konjuntzioarena ala *-dun* atzizkiarena?

Interpretazio batera jo nuen. Burkoa biguna zein gogorra egin ahal zaigu, eguna nolakoa izan dugun, buruan kolpeka edo bueltaka dugun gogoeta lasaia den ala ezin eramanezkoa. Atseginez hartzen gaitu eta lo goxo batera lagundu edo ezin bezatuzkoa dela-eta bueltaka eta bueltaka ibilarazten gaitu; hodeia bezain goxoa eta arantza bezain urragarria izan daiteke.

Begiratzen ditut Sarahk (ingelesera) eta Nahiak (frantsesera) egindako itzulpenak,

4. *Senez* 38, 81. or.

eta nago oraindik ere barruraino sartuta ditudala arantzak edo guztiz itsutu egiten nautela hodeiek.

Antropofobia

“Probatu dut, jakina, eta ez zait gustatzen”.

Probatu dut, jakina, eta gustatu egin zait. Atsegin izan dut. Artikuluaren hasieran esan dut *lantegi* berria zela niretzat, sekula literatura arloko testurik itzuli gabea heldu nintzela Gasteizko hartara. Probatzera nindoan, eta probatuta pozik irten naizela aitortu nahi dut, maila ematera heldu nintzen jakin gabe betiere.

Diodanez

El objetivo del artículo es compartir mi experiencia de lo que fue *Idazlea itzultzaileen lantegian 2009* (El escritor en el taller de sus traductores). No es un trabajo teórico sobre la traducción, sino una mezcla de reflexiones, sensaciones, miedos y risas recuperadas casi medio año después, ordenadas al ritmo de los 11 microcuentos de Karlos Linazasoro que tuvimos que traducir y debatir. Pretende ser, por lo tanto, una mirada retrospectiva, como si de un ejercicio de *retroactividad* se tratara, una relación de los momentos que más me aportaron, de los pasos que fuimos dando, de las dudas que surgieron (y surgen al recordarlos), del combinado que fue y que tan buen sabor de boca me dejó. Es, finalmente, un agradecimiento a quienes me dieron la oportunidad de participar y a quienes con su trabajo de coordinación hicieron que me sintiera entre amigos *recontrados*.

Diodanez

The aim of the article is to share my experience of *Idazlea itzultzaileen lantegian 2009* (The writer in the Translators' Workshop). It is not a theoretical work on translation, but a mixture of thoughts, feelings, fears and laughs recovered nearly a year after, ordered in time with the 11 short stories of Karlos Linazasoro which we had to translate and discuss. Therefore, it intends to be a retrospective glance, as if it were an exercise of *retroactivity*, a list of the moments that provided me the most things, if the steps that we took, of the doubts that came up (and still come up when we look back), of the combination that took place and that left me such a good taste in my mouth. Finally, the article is a channel to express my gratitude towards the people who gave me the opportunity to take part and those who made me feel amongst *old* friends thanks to their coordination work.

Diodanez

L'objectif de l'article est de partager mon expérience de l'atelier *Idazlea itzultzaileen lantegian 2009* (L'écrivain dans l'atelier des traducteurs). Ce n'est pas un travail théorique sur la traduction, mais un mélange de réflexions, de sensations, de peurs et de rires récupérés presque six mois après, organisés au rythme des 11 micro-nouvelles de Karlos Linazasoro que nous avions à traduire et à débattre. Il s'agit donc d'un regard rétrospectif, à la guise d'un exercice de *rétroactivité*, une liste des moments qui m'apportèrent le plus, des pas que nous fîmes progressivement, des doutes qui surgirent (et surgissent en se les rappelant), de l'assortiment que cet atelier constitua et qui me laissa un si bon goût en bouche. C'est, enfin, un remerciement à ceux qui me donnèrent l'opportunité de participer et à ceux qui, par leur travail de coordination, me firent me sentir parmi des amis *recontrés*.